


DROGETEN ITURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 311. zenbakia. 2022ko maiatza

Artarraiko kideak Donejakue bidean





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatueta:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Eneko López,
Nahia Ruiz Albizuri,
Jon Saez
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Koldo Aranberria.

LAGUNTZAILEAK:

Javier Crespo,
Ermuko Berbalagun,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López eta
Valentín Mugarza.

ARGAZKIAK:

Antxitxiketan,
Juanmi Bravo,
Mari Jose Castillo,
Javier Crespo,
Eskolabarrí Ikastetxea,
Estibalitz González,
Jesús María de la Hoz,
Valentín Mugarza,
Paula Prol,
Xabier Ruiz,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Alazne Goikoetxea,
Piedi Eizagirre
eta Mohamed Hdidou.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak


Herritarron ahotik

Gaia: Ume-kantua

Etxebarri zaharra

(Entzuteko: www.alboka.es)

Etxebarri zaharra
ez da gizon txarra,
ganbaratik jausi jako
bere sabai zaharra!



EUSKARALDIA

LAN ESKAINTZA

Euskaraldirako
koordinatzailea
behar da Ermuan.

Ikusi lan eskaintza
22. orrian

Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA 4 Xabier Ruiz (Lituania)	ERMUAN ZER? 17 Eskilarapeko irratia
ELKARRIZKETA 5-7 Paula Prol eta Mari Jose Castillo	KIROLZALE 18 Artaraiko kideak Donejakue Bidean
MALLABIAN ZER? 8-9 Pala eta pilota eskola	ESKOLEN TXOKOA 19 Ermua BHI Institutuko berriak
MOTZEAN 10 Ermuan Kantuan egitasmoa berriro kalean	ANTZINAKOAK 20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
DEBABARRENA BIEMH AZOKAN 11-14	ZORION-AGURRAK 21 Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN 16 Plaza batek Jasone Salaberriaren omenezko izena darama	EKAINEN AGENDA 22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Xabier Ruiz

Xabier Ruizek, 19 urteko ermuarrak, Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioko goi mailako heziketa zikloa ikasten du Elgoibarren. Erasmus programaren bidez Lituaniara joan zen praktikak egitera martxoan. Ia 3 hilabete eman ditu jada Vilnako pisu txiki batean.

- Zerk bultzatu zaitu Lituaniara joaten?

Ez naiz herrialde askotara joan, Frantzia egon naiz urrutien. Beste herrialde batera bidaia-tzeko esperientzia bizi nahi nuen, eta gainera nire lehen lan-esperientzia aprobetxatu ahal izatea.

- Zer eman dizu Lituaniak beste herrialdeekin alderatuta?

Esan beharra dut, lehenasuna eman niela Alemaniari eta Italiari. Lituania ez zen nire lehen aukera izan, baina hala ere pozik hartu nuen joateko aukera. Nire ikuspuntutik, Espainiako eta Euskal Herriko inguruko herrialdeekin alderatuta, herri guztiz desberdina da, eta lehen momentutik argi izan nuen beste inon ikusi ezin izango nituen gauzetaz gozatuko nuela.

- Bazenuen Lituaniako kulturari buruzko ezagutzarik?

Nola imajinatzen zenuen herrialde hura?

Ez nuen herrialdea ezagutzen. Uste nuen Eskandinaviako herrialdeen antza handia zuen herrialde batera nentorrela; jendea hotza izango zela pentsatu nuen. Baina haiekin hitz egiten duzunean, konturatzen zara uste baino irekiagoak direla. Argi dago oso kultura desberdina dela.

- Zerk harritu zaitu gehien?

Asko harritu nau elizetako arkitekturak, hemengoak kristauak eta ortodoxoak baitira. Gainera, zazpi edo zortzi daude hirian, eta haien arteko distantzia ez da handia. Gastronomiari dagokionez, ez naiz ezer probatzera ausartu. Esan zidaten bi plater tipiko zeudela, eta gainerako guztia Indiako sukaldaritza zela.

- Nolakoa da zure eguneroko bizitza?



Astelehenetik ostiralera lan egiten dut: 9:00etan lanera sartu eta 16:00etan irteten naiz. Jaikitzen naizenean, nire pisu-kidearekin gosaltzen dut, eta lanera joateko autobusa hartzen dugu. Lanaldia amaitzen dugunean, etxeko lanak egiten ditugu, erosketak, garbiketa edo dagokiona. Bukatutakoan, bizi naizen lekutik gertu dagoen gimnasio batera joaten naiz.

- Zer egiten duzu zure aisialdian?

Hogeita laguneko taldea daukagu hemen, Erasmusa egiten ari direnak. Hiritik alde egiten dugu zerbait hartzeko, eta eguraldi txarra badago, norbaiten etxean elkartzeko gara. Bestalde, Aste Santuan, inguruko museo eta elizak bi-

sitatzera joan nintzen lagun pare batekin, Lituania, Letonia eta Estoniatik hurbil zeuden herrialdeak bisitatzeaz gain.

- Zeren edo noren falta sentitzen duzu gehien?

Familiarena eta lagunena. Jendeak esan ohi duena da, baina egia da haietaz gogoratzen zarelarela beti. Gogorra egiten da bizitza osoa inguru berean egon, eta bat-batean ezagutzen ez duzun herrialde batera joatea.

- Uste duzu Lituaniara noizbait itzuliko zarela?

Etorri aurretik, uste nuen ez zitzaidala gustatuko itzultzeko adina. Hala ere, egunen batean bueltatzeko aukera ematen badidate, baietza emango nukeelakoan nago.

Eneko López

SAN ANTONIO OKINDEGIA GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

AIZ

AIZ Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen

elkarrizketa



Paula Prol

Mari Jose Castillo



Antzerkiak liluratuta

Paula Prol eta Mari Jose Castillo ermuarrek antzerkigintzan dihardute aspaldidanik. Umetatik izan dute biek antzerkia gustuko, eta gaur egun esparru berean aritu arren, ezberdinak dira bi emakume hauen motibazioak, formakuntza eta eszenatokian erabiltzen duten hizkuntza bera ere. Paula Prolek telekomandoa zuen jostailurik gustukoena, eta harekin eskuan eta amaren gona bat jantzita, kantuan pasatu zuen haurtzarora. Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi Mailako Eskolan burutu zituen ikasketak gero, eta antzerki konpainia sortu du duela gutxi Albar Cirarda aktorearekin batera: La Brecha. Maiatzaren 27an Ermua Antzokian izango dira, *Todo en nosotros* lanarekin. Bestalde, Mari Jose Castillok Estudio 1 programarekin gozaten zuen txikitan, eta gaztetan, ostegunero joaten zen mutil-lagunarekin antzerkia ikustera. 1988an joan zen Cerverara (Lleida) bizitzera, eta bertan ekin zion antzerkigintzari duela 15 urte. Cerverako *Pasioan* parte hartzen du, akelarrean, eta bere taldeak noizetik noizera prestatzen dituen antzezlanetan.

Paula Prol, aktorea:

“Antzezlan guztiek aldarrikatzen dute zer edo zer”

Paula Prol ermuarrak eta bere konpainiak bi urte eman dituzte *Todo en nosotros* antzezlanarekin, eta maiatzaren 27an Antzokian aurkeztuko dute, 20:30ean (sarrerak ordubete lehenago salduko dira txartel-leihatilan). Prolen esanetan, oso hunkigarria izango da Antzokiko eszenatokira igotzea.

- Aspaldi hasi zinen *Todo en nosotros* antzezlanarekin lanean...

Bai, ikasten ari ginen bitartean konpainia sortu genuen beste aktore batek eta biok, eta lan hau aztertzeari ekin genion. Antón Chéjov antzerkigilearen *La gaviota* lanean oinarrituta dago, eta bi urte eman ditugu hura moldatzen. Getxon estreinatu genuen, Bilbon egon ginen gero, eta gaur egun Euskal Herriko beste antzerki batzuetara zabaldu nahian gabilta.

- Zer kontatu dezakezu antzezlan horri buruz?

Gaztetasunaren metafora bat da, neurri batean lengoia poe-

tikoa erabiltzen du, eta uharte bakarti batean gertatzen da. Emozioak ezin direnean beste modu batera azaldu, abestu egiten dugu.

- Berezia izango da zuretzat Ermuan antzeztea?

Bai, irrikan nago. Lau urterekin hasi nintzen antzerkia egiten Juan Carlos Colinarekin, eta 18rekin utzi nuen Bilbora joateko. Oso urduri nago, profesional bezala bueltatuko naizelako, eta oso berezia izango da.

- Zerk erakartzen zaitu interpretaziotik?

Uste dut txikitan eszenatokiak berak erakartzen ninduela, eta txaloak jasotzeak. Gaur egun,



aldiz, gehien estimatzen dudana da gauzak adierazi eta aldarrikatu ahal izatea, inork hitza kendu barik. Halaber, asko erakartzen nau ikusleek eta aktoreek espazioa eta denbora konpartitzeak.

- Antzerki aldarrikatzailea egiten duzu?

Bai, antzerki politikoa eta erreibindikatiboa egiten dugu. Dena den, uste dut antzezlan guztiekin, komediarekin zein dramarekin, beti daukazula zer esan eta zer erreibindikatu.

- Zer dela-eta sortu zenuten konpainia bat?

Horren beharra sentitu genuen, eta oso ohikoa da bakoitza bere bidea egiten hastea. Ezin zara telefono dei baten zain geratu. Unibertsitatean sortzeko erremintak eman dizkigute, eta ez gara soilik aktoreak, baizik eta

sortzaileak ere. Gure lanekin gazteak antzerkira erakarri nahi ditugu, gazteak ez direlako antzokietara hurbiltzen.

- Zer daukazu orain esku artean?

Gure konpainiaren hurrengo antzezlanarekin idazten hasi naiz, gazteen etorkizunaz hitz egiten duena: benetako feminismoa, klima-aldaketa... Horrez gain, Vulnera Compañiaren *Lo que no se ve* antzezlanean parte hartuko dut urritik aurrera. Lan horrekin Harrobiaren Proiektu Eszenikoen Erakusleihoko irabazleak izan ginen.

- Nola ikusten duzu zure burua etorkizunean?

Antzerkia egiten jarraitzea gustatuko litzaidake. Badakit oso zaila dela, eta horregatik nago irakaskuntzara begira ere.





ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12



Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGUAK 943 030 299**



CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15



IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia
94 317 66 90
peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com



Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a ti

Dr.a. OLATZ GARCÍA ARREGUI Col. nº 1264

PADI 943 17 04 04
Programa Ayuda Dental Infantil Gobierno Vasco
info@clinasanpelayo.com
San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

Mari Jose Castillo, aktorea:

“Eszenatokian hartzen den segurtasuna bizitzako beste esparruetara zabaltzen da”

Kasualitatez hurbildu zen antzerkira Mari Jose Castillo ermuarra, 10 urteko semea entsegu batera eramatera joan zenean. Paper txikia eskaini zioten Castillori *Pasioan*, eta ordutik antzerkira lotuta bizi da, sentimendu gazi-gozoekin.

- Zer da eszenatokira igotzeaz gehien gustatzen zaizuna? Lotsatiak izan garenontzat sentsazio berezia da. Teloia zabaldu, eta urduritasun berezia sartzen zaizu, ez dakizu aurrrera egiteko gai izango zaren

edo ez... Gero eta segurtasun handiagoa hartzen duzu, eta segurtasun hori zure bizitzako beste esparru guztietara zabaltzen da.

- *Pasioaz* gain, beste lan batzuetan parte hartzen duzu?

Bai, *Pasioaren* barruan antzerki taldea sortu zen, eta horrekin batera *Akelarrea* egiten dugu abuztuko azken asteburuan. Emanaldi garrantzitsua da, aurrekontu handikoa. Horrez gain, hainbat urtetik behin antzezlan bat prestatzen dugu. Ahal dudanean parte hartzen dut, hizkuntzarekin zailtasunak ditudalako.

- Antzerkiarekiko zaletasun berezia dago Cerveran?

Bai, agian hemengo antzokiko eszenatokia Europako handiena delako (40 metro ditu alde batetik bestera), eta aktore asko behar dira hura betetzeko: 300 bat lagun biltzen gara *Pasioan*, horietako 150 eszenatoki gainean. Ikusleei dagokienez, lehen, 6 emanalditan, 20.000 lagun inguru biltzen genituen; azken urteotan, aldiz, 2.000 inguru egon dira bakarrik. Izan ere, katalanez egiten dugunetik, ez dira ondoko probintzietako ikusleak etortzen.

- Hizkuntza aldatzeaz gain, beste moldaketarik egin da? Bai, laburtu egin da. Lehen goizean eta arratsaldean egi-

ten zen, gero 4 ordura jaitsi zen, eta orain beste ordubete murriztu dute. Jantziak ere berritu egin dira, eta orain kolore apalagoak erabiltzen ditugu, politagoak. Ezinezkoa dirudien arren, kontakizuna eguneratzen goaz.

- Fededunei bakarrik zuzenduta dago?

Ez, ezta gutxiago ere. Bizitzaren isla da, egunerokotasunean gertatzen diren egoera asko ematen dira.

- Nola ikusten duzu zure burua hemendik urte batzuetara?

Urtero esaten dut antzerkia utziko dudala, baina jarraitzen dut. Arazo ekonomikoak daude, bilera eta izapide asko, lan administratiboa... Baina ez didate lagatzen joaten.

- Gustatuko litzaizuke Ermua Antzokian antzeztea?

Izugarri! Eta hemengo jendea hara joatea! Beti esaten dut jende guztiak ezagutu behar lukeela hango bizimodua. Oraindik ere faltan botatzen dut!

Dorleta Vidal





ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com


Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa


GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzordua: 688 85 18 95

Eskuz egindako terapietan adituak


ARTROS
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.artrosermua.com

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL

BERTAKO OKELAK ETXEAN EGINDAKO TXORIZO TXISTORRA ODOLOSTE ETA KROKETAK

PROBALEKU 3 - 943 170563
ERMUA

Pala eta pilota unerik gorenean

Berrogeita hamar ume baino gehiagok dihardute aurten Mallabiko Pala eta Pilota eskolan, azken urteotako kopururik altuena. Itxaso Praderak, Isma Praderak, Aitor Elordik, Naroa Martinezek eta Jare Landak zerikusi handia izan dute gorakada horretan, eta ikasturteari amaiera emateko, jaialdia burutuko dute ekainaren 22an Mallabia I Pilotalekuan.

Duela hiru urte hartu zuten Itxaso Praderak eta Isma Praderak Mallabiko Pala eta Pilota Eskolaren gidaritza, Aimar Sanzekin eta Izaskun Zurikararekin batera. Itxaso palari lotuta egon da urte askoan: Munduko txapeliduna izan zen, eta

hainbat urte eman ditu beste palisten entrenatzaile bezala; Ismak, aldiz, esku-pilotarekin izan du harremana, afizionatuetan jokatu zuelako gaztetan. Bien helburua izan zen kirol hauei bultzada ematea herrian, batez ere esku-pilotari, "azken urteotan nahiko



galduta egon delako", aitortu dute.

Astiro-astiro hasi ziren umeak bereganatzen, eta gaur egun bost urtetik gorako berrogeita hamar ume inguru daude eskolan, neska zein mutil. Horieta batzuk, gainera, bi kirolatan aritzen dira: esku-pilotan eta palan.

Ume hauen helburua ondo pasatzea da, baina hala ere ikasturtean zehar herri ezberdinetan jokatu dute, eskolarteko txapelketetan. Txapelketa horietan lehia egon arren, giro ona nagusitzen da. "Beste kirol batzuekin alderatuta, pilota

kirol nobleagoa da. Umeen artean adiskidetasuna dago, eta gurasoak ere lasai daude jarlekuetan", esan du Ismak.

Denboraldiari bukaera emateko, jaialdia burutuko da Mallabian ekainaren 22an, asteazkena, eta egun horretan talde argakia egingo dute, luntxaz gozatu eta oroigarriak banatu. Horrez gain, Aitor Elordi eta beste pilotari profesional bat bertara hurbilduko dira seguruenerik, umeekin apur bat jolasteko eta haien zaletasuna areagotzeko.

Dorleta Vidal

Itxaso Pradera eta Isma Pradera.



Caperos

Pintxoak • Razioak • Kaxolak • Plater konbinatuak • Ogijartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 • 636 549 154

OSASUNA * ESTETIKA EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiaturre, 2 - 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

ileapaindegia

Silvia
peluqueria

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00

943 170474 688819336

Naroa Martinez eta Jare Landa, palako entrenatzaileak:

“Maila fisikoan zein emozionalean alderdi asko lantzen dira palara jokatzeko”

Naroa Martinez eta Jare Landa mallabitarrek palako jokalariek federatuak dira, eta aurten ekin diote umeak entrenatzeari. Gustukoa dute, eta jarraitzeko asmoa daukate ikasketekin uztartu dezaketean bitartean.

- Zer dela-eta hasi zarete entrenatzaile lanetan?

Isma Praderak proposatu zigun bioi, eta baietza eman genion. Ez da gauza bera jokatzeko edo entrenatzea, baina gustatzen zaigu. Aukera bezala ikusi genuen, esperientzia polita da,

eta jendearekin harremana izaten eta erakusten ikasten duzu. Irakaslearen lekuan jartzen zara, eta enpatia lantzen da. Gainera, asko ikasten da umeak jokatzeko ikusten.

- Naroa 10 eta 17 urte bitarteko 14 gaztetxoekin aritzen da, eta Jare bost urtetik gorako 12 bat umerekin. Nola entrenatzen duzue haiekin?

Txikiekin pazientzia behar da, baina gogotsu badatoz gauza asko egin daitezke, hamaika gauza proposatzen dituztelako. Nagusiekin, aldiz, igartzen da batzuk konpetitzeko datoze-la, eta dagoeneko igartzen da zeintzuk duten esku ona.

- Zer landu daiteke palaren bitartez, bai maila fisikoan zein esparru emozionalean? Maila fisikoan, erreflexuak, indarra... Alde emozionalari dagokionez, galtzen ikasten dute, hala nola bikotekidearekin harremana lantzen.



Naroa Martinez ezkerrean, eta Jare Landa eskuman.



Aitor Elordi.

Aitor Elordi, pilotaria:

“Umeak pozik datozen bitartean, ni ere pozik nago”

Berriatuan bizi den arren, Aitor Elordi pilotariak ez du Mallabiko entrenamenduetara huts egiten. Aurten ekin dio zeregin honi, eta 30 ume ingururekin aritzen da, guztiak 12 urtetik beherakoak.

- Zer dela-eta hasi zara entrenatzaile lanetan?

Aurten denbora daukadalako, eta probatu nahi nuen.

- 6 eta 12 urte bitarteko umeekin jarduten duzu. Zeinekin gusturago?

Nagusiekin, ariketak ulertzen dituztelako eta badakite zer nahi duzun. Txikiak, aldiz, euren munduan egoten dira, eta pazientzia behar da.

- Adin horiekin, badago nabarmentzen den umerik?

Bai, beti dago nabarmentzen den baten bat, erraztasun handiagoa duelako kiroletan.

- Neskak eta mutilak...

Gaur egun denak batera ibiltzen dira, pilota bigunarekin.

- Zein da umeen helburua?

Ondo pasatzea, eta nirea ere, entrenatzaile bezala, hori da. Hortik aurrera beste helburu batzuk dituztenek pilotan jarraituko dute.

- Esku pilotarako zaletasun berezirik dago Mallabian?

Bai, baina azken urteotan galtzen joan da, futbolaren eraginez. Egungo zuzendaritzari esker, berriro piztu da.

- Uste duzu zu pilotari profesionala izateak umeak erakartzeko dituela?

Euren lekuan jartzen naiz, eta baietza esango nuke. Ez didate esaten, baina igartzen da pozik datoze-la. Eta eurek pozik dauden bitartean, ni ere bai.



Irailtik aurrera **PILATES**eko klaseak emango ditugu. Informazio gehiago jasotzeko, deitu edo idatzi 688 61 98 96 telefonora.

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUE col 1666

EGOITZ FORMOSO col 1675



BERA BERA ESKUBALOI TALDEA LIGAKO TXAPELDUNA

Super Amara Bera Bera taldeak bere zortzigarren Guerreras Iberdrola Liga eskuratu du, Morvedreri 30-16 irabazita. Donostiako eskubaloi talde honetako entrenatzailea da Imanol Alvarez ermuarra eta Mirene Moreno jokalarietako bat. Azken honek datorren denboraldian ez du bertan jokatu eta, alde egiten duten beste bi kideekin batera, agur emotiboa jaso zuen, egindako lana eskertuz eta bere ibilbidea goraiapatuz. Bestalde, Zuazo Barakaldon lau denboraldi egin dituen Anne Erauskin jokalaria Bera Berak fitxatuta Donostia aldera lekualdatuko da.

ANDONI ISUSIK HIRUGARREN POSTUA ESKURATU DU TXAKUR KROSEKO MUNDUKO TXAPELKETA

Apirileko azken asteburuan jokatu zen Txakur kroseko ICF zirkuituko Munduko Txapelketa Pledranen (Frantzia), eta Andoni Isusi ermuarrak eta bere txakur Baltok brontzezko domina irabazi zuten bertan. Duela bospasei urte hasi zen Isusi lasterketa hauetan lehiatzen, Balto greyster-alascanoekin edo Tyson pitbullarekin, eta ordutik oso emaitza onak jaso ditu. Horren adierazle dira 2022-2023 denboraldian Espainiako Neguko Kirolen Federazioko kidea izango dela, eta Norvegiako Non Stop Dogwear markaren CaniXTeam taldean parte hartuko duela.

Ermuan Kantuan egitasmoa berriro kalean izango da

Ermuko Gazte Asanblada eta Euskal Birusa Elkartearen ekimenez, maiatzaren 28an Ermuan Kantuan jarduerak musikaz eta abestiz alaituko ditu beste behin herriko bazterrak. Herritar guztiei zabaldua dagoen egitasmo musikal hau eguerdiko 12:30ean abiatuko da Kardinal Orbe plazatik eta abestuko direnen kantu-paperak bertan banatuko dira. Beraz, abestea gustuko baduzu, zapatu goiz baterako plan ederra duzu berau.



Txindurri Eguna ekainaren 11n eta 12an ospatuko da

45. urteurrena ospatuko du Txindurri Txistu eta Dantza taldeak, eta bi egunez luzatuko dira bere harira antolatutako ekitaldiak. Aurten Fustiñanako Barde Ribera dantza taldea gonbidatu dute eta nafarrek larunbat arratsaldez egingo dute beraien erakustaldia, bertako taldearekin batera. Goizean emango zaio hasiera egunari eguerdiko dantza-poteoarekin eta amaiera iluntzeko Kitturen erromeria eta ondorengo Larraindantzarekin. Ekainaren 12a kalejirak eta dantza erakustaldiak alaituko dute, bazkari autogestionatua izango da gero eta amaiera Fan&go taldearen plaza-dantzek emango diote.

Antxitxiketaren 25. urteurrenaren ospakizunak egingo dira

Pandemiak ekarritako murrizketa sasoian bete zituen 25 urteak aisialdi talde ermuarrak, eta haren inguruko ospakizunak atzeratu beharrean topatu ziren. Ekainaren 25ean dute hitzordua eta egunean zeharreko hainbat ekitaldi prestatu dituzte, adin guztiei begira: goiz partean, herriko erdigunean, puzgarriak, musikarekin alaitutako poteoa eta bazkaria, catering motakoa. Tiketak aldeztu aurretik jarriko dira salgai eta 3 menu mota eskainiko dira: umeena, helduena eta begetariano-beganoa. Arratsaldean disko-festa Jon Saez DJak alaitua eta erromeria gero. Bestalde, taldeak kudeatzen duen udako Ludotekarako izen-ematea ekainaren 13an amaituko da. 2-6 urte bitarteko umeei zuzendua, ekainaren 27tik uztailearen 22ra bitarteko iraupena izango du, eta zerbitzua asteka ere lotu daiteke. Informazioa behar izanez gero, idatzi antxitxiketanbegiraleak@gmail.com helbide elektronikora edo deitu 688 66 64 65 telefonora.



ANTONIA ORMAETXEA NARBAIZA 2022ko maiatzaren 8an

*Ama, amama, tia, amatxo Antonia.
Eskerrik asko eman diguzun guztiagatik.
Zure indarra gure baitan hartuko dugu eredutzat.
Askoi maite zaitugu.
Zure familia.*



SPEAKER'S CORNER
DE CincoDías

sarenet
CONECTAMOS CON TU EMPRESA

Seguridad para entornos de IoT Industrial

Desde 1995

dkt

Debabarreneko
Komunikazio
Taldea

Debabarrena BIEMH azokan

Lau urteko geldialdiaren ostean, aurten, ekainaren 13tik 17ra bitartean, batuko dira berriz makina-erremintako ekoizle eta bezeroak BIEMH 2022 azokan. 26 herrialdeetako 1.200 enpresak baino gehiagok parte hartuko dute Barakaldoko BECen, tartean Debabarrenekoak ere bai, euren produktuak, berritasunak eta zerbitzuak bezeroei erakutsi eta harreman komertzialak egiteko gogoz.

BIEMH bueltan da

DEBABARRENEKO 32 ENPRESAK HARTUKO DUTE PARTE BERTAN

AFM Makina-Erreminta Ekoizleen Elkartearen ustez, ekainaren 13tik 17ra bitartean BECen egingo den BIEMH 2022 makina-erremintaren azoka inoiz baino beharrezkoagoa da, “gaur egun bizi dugun egoera konplexuaren aurrean”. Horregatik, azken hamarkadan egon den parte-hartzaile kopuru handiena bilduko da BECen: 26 herrialdetako 1.200 enpresa baino gehiago. “Izen-emateen kopurua eta aurten egin diren antzeko ekintza txikiagoetan atzeman dugun giro ikusgarria kontuan hartzen baditugu, BIEMHren 31. edizioko parte-hartzea historikoa izango dela aurreikusi dezakegu”, diote AFMtik.

Enpresa horien artean Debabarreneko 32 izango dira: Itziar-Deba industrialdean dauden Alteyco, Chiron, Dexis, GER, Gurutzpe, Mosnic-Irudex, Tecnifuelle eta Zeatz; Elgoibarko Berkoa, Burgelu, Cometel, Danobat, Fanuc, Geminis, Ideko, IMH, Maher, Sariki, Smartpm eta Unceta; Eibarko Egasca, Izalan, JAZ Zubiaurre, Metronic, Neurtek eta Tekniker; Ermuko Blum, Cortesa, Innocut eta Herval; Mendaroko Urkunde; Sorluzeko Elesá-Ganter; eta Osintxuko Soraluze.

Parte-hartzaileak sei pabilioitan banatuko dituzte, azpisektoreka: industria-robotak, manipulazio-sistemak, kontrolerako softwareak, industria-automatizazioak, tratamenduak, osagaiak, gehigarriak... Eskualdeko enpresa gehienak lehen pabilioian egongo dira kokatuta.

Makina-erremintaren sektorea oso bizkor ari da garatzen. Hori dela eta, azterketa eta gogoeta egiteko asmoz, BIEMHk arreta berezia jarriko die berrikuntzei eta aurrerapen teknologikoei. Horrela, fabrikazio aurreratuan dabilzan enpresek atal bereziak izango dituzte. Esaterako, 3D inprimaketan jarduten dutenak, ADDIT3D atalean elkartzeko dira eta digitalizazioan espezializatutakoak BeDigital atalean.

Hitzaizkiak eta festa

Enpresek euren produktu eta zerbitzuak eskaintzeaz gain, zenbait hitzaizki antolatuko dituzte BIEMHren inguruan. Hala, nazioarteko 55 hizlarik sektoreari dagozkion gaiak jorratuko dituzte: indus-



Makina-erremintaren azoka Barakaldoko BEC erakustokian. BIEMH

tria-mantenuaren berrikuntzak, automatizazioa eta robotika, eraldaketa digitala eta fabrikazio aditiboa. Horiek eta azokaren gaineko beste hainbat eduki zuzenean eskainiko dituzte BIEMH TV telebista-katearen bitartez: produktu berriak, sektoreko profesionalen lekukotzak...

Bestalde, hilaren 15ean, eta giro lasaian negozio-harremanak sustatu asmoz, BIEMH Fest izeneko jaialdia antolatuko dute Bilboko kaleetan, 19:30etik aurrera.

Euskal industriaren oinarri

Orain dela egun gutxira arte AFM makina-erremintaren klusterreko presidentea izan den Cesar Garbalenak esan bezala, makina-erremintaren sektorean diharduten enpresak euskal industriaren oinarri dira, eta berebiziko garrantzia dute Debabarrenean. Makina-erremintak pisu handia izan du eskualdeko industriaren historian (horren erakusgarri, Elgoibarren dagoen Makina-Erreminta Museoa) eta gaur egun ere enpresa asko dira bailaran sektore horretan dihardutenak.

AFMren azken txostenaren arabera, makina-erremintaren sektoreak susperraldia bizi du pandemiak eragindako gorabeheren ondoren eta, 2021ean fak-

turazioa %18 hazi ostean (igoera 1.571,20 milioi eurokoa izan da), 2022an %7-10 igotzea espero dute. Horrela, aurreikuspenak betetzen badira, sektoreak pandemia aurreko salmenta kopuruak gaituzteko dituzte.

Iazko bigarren seihilekoan zailtasunak izan ziren arren (osagaien eta materialen falta eta garestitzea, inflazio-tasa handia, Txina bezalako merkatuetan sartzeko zailtasunak...), 2021ean esportazioak %23,41 hazi ziren 2020arekin alderatuz eta AEB, Italia, Alemania, Txina, Frantzia, India, Turkia, Portugal, Mexiko eta Erresuma Batua izan ziren hemengo ekoizleentzako merkatu nagusiak. Eskakerak %30 hazi dira 2019ko datuekin alderatuz eta %69,2 2020ekin konparatuz gero.

Datu horiek kontuan hartuta, sektoreak baikor begiratzen dio etorkizunari, nahiz eta Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazkak ondorioak ekar ditzakeen. Izan ere, AFMko enpresek Errusiarekin zituzten harreman komertzialak eten dituzte, baina klusterrekoek diotenez “kaltetutako operazioak ondo estalita daude eta, gainera, sektorearen salmenten %1-3 besterik ez ziren egiten Errusian, batez ere aeronautikarekin, trenekin eta energiarekin zerikusia zutenak”.

Elesa Ganter Iberica

“GURE ASMOA DA AURTEN BISITARI KOPURU ERREKORRA JASOTZEA”

Elesa+Ganter Iberica SL Soroluzeko Mendiola industrialdean kokatuta dagoen enpresa da, zehazkiago esateko, mundu mailako osagaien merkatuan liderrak diren Italiako Elesak eta Alemaniako Ganter etxeek 1997an sortu zuten joint venturea. Filialak makinenzako osagaiak ekoizten ditu: bisagrak, imanak, erru-berak, ixteko eta estutzeko elementuak... Azken 11 urteetan, hazkunde ikusgarria izan du %750 hazita eta sektoreko lider bihurtzea lortu du Iberiar Penintsulako merkatuan.

Jesus Blanco Zuzendari Orokorraren esanetan, “pandemiaren ostean, sektorearen egoera esponentzialki hobetu da eta gaur egun enpresaren egoera oso ona da. 2021ean, gure enpresak marka historikoa ezarri zuen 8,5 milioi euro fakturatuta”. Filialak 25 urte bete dituen

honetan, lantaldea 27 pertsonak osatzen dute eta Soroluzeko lantokiak 3.000 metro karratu baino gehiagoko instalazioak ditu, gehienak enpresak duen stock zabalari eskainiak.

Blancok azaldu duenez, azken urteotan aldaketa handiak izan dira merkatuan eta lan egiteko moduetan: “Gaur egun, unean uneko eskariekin lan egiten da, bolumen txikiko baina balio erantsi handiko ekoizpenetan. Produktu merkeak Europatik kanpo egiten dira. Gero eta herrialde arraroagoetara saltzen dugu, eta, gero eta konplikatuagoa da dena. Baina ez dago besterik, hau horrela da. Edo jarraitzen duzu edo hiltzen zara. Ez dago besterik”.

Azokari begira

Blancoren ustez, ekainean BECen egingo den makina-erremintaren biurteko

azokak “funtsezko garrantzia” du sektorearentzat eta sektorearen egoeraren “adierazle ezin hobea” da, “erakusketari kopuruagatik eta bertan ezagutu daitezkeen produktu eta teknologia berriengatik”.

Aurtengo azoka arrakastatsua izango dela aurreikusten du Blancok: “Bi urteren ostean, fabrikatzaile eta hornitzaileekin harreman zuzena izateko gogo handia dago. Gure asmoa da bisitari kopuru errekorra jasotzea”. Horretarako, Elesa Ganterrek azken urteotan merkaturatu dituen produktu berri guztiak erakutsiko ditu bere Barakaldoko azokan. Zuzendari Nagusiak garbi du zein den Elesa Ganterren helburua aurtengo edizioan: “enpresaren presentzia mantentzea eta gure jarreraren sendotasuna berrestea”.

25 YEARS
ELESA+GANTER
IBÉRICA

elesa+Ganter 

ELESA+GANTER IBERICA EN BIEMH 2022

**EZAGUTU GAITZAZU
GURE STAND-EAN:
Ekainaren 13tik 17ra**

**BEC!
1 Pabiloia
F21 Stand-a**



*Ezagutu gure produktu katalogoa elesa-ganter.es webgunean

eta **jarrai gaitzazu** hemen:    



DESIGNED **FOR ENGINEERING**

 **+34 943 75 25 20**

 **info@elesa-ganter-iberica.com**

Danobat Group

DANOBATEK AEROSORGAILUEN PALAK EGIAZTATZEKO SOLUZIOA ERAKUTSIKO DU BEC-EN

Danobat Group Mondragon Taldeko kooperatiba talde arrakastatsuenetakot bat da, makina-erremintaren sektorean prezisio eta tamaina handiko makinak ekoizten dituena, Danobat eta Soraluce markapean. Hornitzen dituen sektore nagusien artean aeroespaziala, tren, automobilgintza, energia, petrolio eta gasa daude. Hala, Deba bailarako taldeak ia 226 milioi euro fakturatu zituen eta, gaur egun, 1.300 langile ditu munduko hainbat herrialdetan zehar dituen 15 ekoizpen guneean banatuta: Deba bailaran, Alemanian, Erresuma Batuan, Herbehereetan...

Pello Rodriguez Danobatgroupeko Zuzendari Orokorraren esanetan, makina-erremintaren sektoreak, "oro har", pandemia aurreko salmenta- eta esportazio-mailak berreskuratu ditu eta 2022ari

begira dio, urte hasierak "ekitaldi ona" iragarri duela, "merkatu nazionala eta automobilgintza zein aeronautika bezalako sektoreak moteldu diren arren". Nazioartean ere "Errusia eta Ukrainaren arteko gatazkak eragindako hornidurakateen egoera konplexua eta arazo logistikoak eta Txinako gobernuaren COVID zero politikak sortutako ziurgabetasuna gorabehera", sektoreak aurrera egingo duela uste du, "industria-sektore gehienak inbertitzen eta eskaerak egiten" jarraitzen dutelako. Danobatgroupi dagokionez, "2022ko lehen lauhileko eritmoari eutsiz gero", 2019ko datuak erreperaturako dituelakoan da Rodriguez.

Azokarako nobedadea: Endity

Zuzendari Orokorraren esanetan, BIEMH azoka "erakusleihu ezin hobea da sek-

torean dauden azken garapenak erakutsi eta sektoreko eta ekosistema osoko eragileekin elkarreragiteko ere". Alde horretatik, Zuzendari Orokorraren ustez biurtekoa aukera ona da Danobatgroup-eko kooperatibek, "Danobatek, Soraluce eta Idekok, euren ibilbide zabalaren berri" eman dezaten. Gainera, aurtan, "lehen aldiz", balio erantsi handiko piezen ekoizpenerako makinez gain, Endity Danobatgroupen enpresa berriak "aerosorgailuen palak egiaztatzeke eratu duen soluzioa" erakutsiko du BEC-en. Horixe izango da Danobatek azokara eroango duen nobedade nagusia.

Bestalde, aurtan, "pertsonek eta talentuaren aldeko apustua eginez", Danobatek Working Talent Hub industria-enplegu foroan ere parte hartuko duela iragarri du Rodriguezek.

DANOBATGROUP

 **SORALUCE**  **DANOBAT**

DOITASUNA GARA AUTOMATIZAZIOA GARA

Fabrikazio aurreraturako
abangoardiako teknologia gara.



31BIEMH
YOU MAKE IT
BIG AGAIN


1 PABILOIA
C-09 Stand-a

danobatgroup.com



GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE

Bainugelen erakusketa
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

ERROTULAZIOA
ROTEK
R Ó T U L O S
Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak
943 17 00 36
www.rotekrotulos.com
ROTEK
LED PANTAILAK

PERTSIANAK
ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Persianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Persianak dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak
Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)
Erakusketa: Karabixia 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ETXETRESNAK

Egaña
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ELEKTRIZITATEA

BETA
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA
• Proiektuak • Kalefakzioa
• Instalazioak • Gaueko tarifa
• Erreformak • Erradiadore elektrikoak
Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ITURGINTZA
ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA

PALACIOS SM
ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com
www.palaciosfontaneria.com
660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

ABIAN DA 'WE MAKE DEBABARRENA!' STEAM ERRONKA

Eskualdeko ikastetxeek ikasturtean zehar Zientziaren eta Teknologia-aren esparruan egindako proiektuak biltzen ditu "We Make Debabarrena!" erronka. Erronka honen helburua da ikasleek eta zentzoren STEAM bokazioak sustatzeko egiten duten esfortzua erakustea, eta STEAM hezkuntza balioan jartzea (hau da, zientzia, teknologia, ingeniari, arteak eta matematikak). Aurten hamazortzi esperimentu daude ikusgai, eskualdeko zortzi ikastetxetan egin direnak. bptd-makers.eus/reto-steam/ helbidean ikus daitezke esperimentu hauek, eta baita botoa eman ere.

Eskolabarrik bere 25 urteurrena ospatu berri du

Duela 25 urte irakasle talde batek erronka berri bati eman zion hasiera, hastapeneko eta gerokoago oztopoak apurka-apurka gaindituz. Aspalditik prestatzen eta itzaroten ari ziren unea iritsi zen azkenean eta, eguraldia lagun, asteburu ahaztezina bizi zuten umeez, gurasoez, irakasleek eta bertako langileek. Han egon ziren Irulitza txarangaren musikajira, plazako puzgarriak, Antxitxiketako tailerrak, Pacoren disko-festa...



Plaza batek Jasone Salaberriaren eta senarren omenezko izena darama

Baionan, Jasone Salaberria filologo ermuarra eta senarra zuen ziberutar jatorrizko Jean-Michel Larrasquet ingeniariaren omenezko izena jarri diote plazatzko bati, hain justu bikotea bizi zen etxe ondokoari. 2019ko urrian erabaki zuen Baionako udal kontseiluak Larrasqueten izena jartzea, Iparraldeko garapen ekonomiko eta sozialean egindako lan eskerga aitortze asmoz. Orain, 2021ko apirilean zendutako emaztearen izena ere gehitu diote, euskararen gaineko bere ikerketen aitortza gisa. Jasoneren ekimenez eta bertako udaletxean aurkeztu zuen proiektu bati jarraipena emanez, etxeko sukaldetik ikusten zuen plazatzko hori sendabelarren eta espezie autoktonoen baratz pedagogikoa bihurtzeko bidean da bertako lagun talde bat.



Plan B
Coffee Lounge Gin & Beer

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

Bitsi-denda Tailer propioa Edoju-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak
bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

Torrealdy

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOAK

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu

943 17 69 76 ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
607 33 11 77 www.ferreteriaanboto.es

DC Horacio Decoración

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

TAPIZERIA - ALIZARIAK - OSAGARRIAK

Eskilarapeko irratiko kideak:

"Parte hartu nahi duen edonori ireki nahi dizkiogu ateak"

Eskilarapeko irratia duela gutxi sortu da, lagun talde batek irratiarekiko zuen grinari erantzuteko asmoz, denon eskuetan jarritz ideiak zabaltzeko komunikabide berria.

- Zenbat denbora egon zarete proiektua prestatzen?

Duela urtebete elkartu ginen lehen aldiz, baina kontua hor geratu zen. Aurtengo otsailan berriro bildu gara, eta proiektua aurrera ateratzeko zer behar genuen eta nola lortu erabaki zen. Hau izan da proiektua martxan jartzeko lehen pausua, material gabe ezin genuelako aurrera egin.

- Nortzuk osatzen duzue taldea?

Pertsona anitzek, baina gure asmoa ez da guregan bakarrik geratzea. Parte hartu nahi duen edonori ireki nahi dizkiogu ateak, bakoitzak nahi duena egiteko, betiere inklusibitatea kontutan izanik. Gustatuko litzaiguke tailer bat egitea, daukagun materiala nola erabili erakusteko.



- Maiatzaren 10ean egin zenuen lehen saioa. Zenbatero egingo dituzue hurrengoak? Ez daukagu zehaztuta zenbatero egingo dugun, azken finean disfrutatzen egiten dugu, eta behar bat bezala hartzeak hori oztopatuko luke.

- Saioak zuzenean dira?

Ez, ez daukagulako seinaleirik. Hala ere, grabatutakoa ez dago editatua, abestiak ondo sartzen dira, baina esandakoa esan den bezala agertzen da.

- Non entzun daiteke?

Ivoox-en eta Baleafunken. Baleafunk lizentzia libreak erabiltzen dituzten musikari eta podcast egile euskaldunen

komunitatearentzat sortutako Funkwhale instantzia bat da.

- Zeri buruz hitz egiten duzue saiootan?

Saioak irekiak dira, bakoitzak nahi duen horretaz berba egiteko. Gido itxo bat egoten da, baina ez dugu irakurtzen. Badaezpada dago, ez dugu nahi eta ixilik geratzea podcastaren erdian.

- Nola ikusten duzue irratia hemendik urte batzuetara? Gustatuko litzaiguke bizirik jarraitzea, pertsona gehiagok parte hartzea, eta guztiontzako saioak egin ahal izatea.

Nahia Ruiz Albizuri

Tasio eta Sabino



- Burugogorra zara gero! Internet bidez entzun behar dela!

NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

MALLA ilegpaindegia

Probaleku 8, behea
© 943 17 18 50

RIF

ITURGINTZA KONPONKETAK

Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

ARKITEKTURA ESTUDIOA

BERRITZE LANAK ZURE ERAKINEAN

Ez dakizu nondik hasi?

GURE LANTALDE TEKNIKOAK LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es

Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia
943 17 70 57

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

Donejakue Bidea, ekinez egina

Artarrai Mendi Taldeak Donejakue bidea egiteko aukera zabaldu du herritarren artean, Orreagatik Compostelara bitarteko 790 kilometroak etapaka burutzeko asmoz. 71 lagunek hartu zuten parte hasierako 22 kilometroko ibilbidean, eta antolatzaileek edozein pertsonarentzat eta epe luzerako egitasmo bezala aurkeztu dute.

Mendi taldean aspal-ditik zebilen asmoa dantzan, eta orain zazpi bat urte taldetxo bat abiatu zen Donibane Garazitik. Mendizale talde moduan, Orreagaraino iristen den lehen etapa hori da erakarriena, Lepoederreko malda malkartsuak igarotzeko aukera tarteko. Elurtzan 24 kilometro egin ostean, taldekideak lehortuta iritsi ziren Orreagara.

Bigarren saiakera bat egin zen, beti ere mendi ikuspegitik eta aurrerago beste etaparen

bat burutzeko asmoarekin, baina hark ere ez zuen aurrera egin. Dena den, Donejakueren xarma jarraitzen zuen taldearen asmoen zerrendan eta berriro oratu zioten egitasmoari, baina planteamendua aldatuta: etorkizuna eduki zezan, talde kopurutsu batekin hasi beharra zegoen, gerora etorri daitezken jende gorabeheri aurre egiteko, eta 50 pertsonekin hastea jarri zuten helburu. Argi zuten beste behin Garazitik abiatzea, 1.700 metrotik gorako batz besteko desnibe-

larekin, ez zela ibiltzea gustatu bai, baina mendira ohitua ez zeuden lagunentzat. Proposamena irekia izan behar zen eta ez mendizale soilentzat, eta Orreagatik emango zitzaion hasiera.

Arrakasta izugarria izan zuen deialdiak eta 80 pertsonatik gora eman zuten izena; autobus edukiera kontuengatik bakarrik 71 lagunentzat zegoen lekua eta handik gorako guztiak hurrengo irteerarako erretserban geratu ziren. Gogotsu eta lagunarte ederrean egin

zituzten Orreaga eta Zubiriren arteko 22 kilometroak, bideak eskaintzen dituen paraje, herrixka, arte eta kulturartekotasunarekin gozatuz. Hemendik aurrera eta Burgosera iristeraino, egun berean joan eta etorriko etapekin osatzeko asmoa dute; handik aurrerakoak asteburuka eta, Compostelara gerturatu ahala, zubiak aprobetxatuz. Motxila ilusioz eta bizipen gosez beteta, txiri-txiri bidea eginez Galiziaraino!

Estibalitz González



Jesús María de la Hoz.



LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96

Instagram: @LEYTHEBARBER

C/GOIENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)





LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44



ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia

Probaleku, 7 **Tfnoa. 943 17 46 51**

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Ikasleek eguzki-labe solidarioak egin dituzte

Ermua BHIko DBHko 3. mailako 75 ikasleek proiektu solidario batean parte hartu dute buru belarri hiru hilabetez. Izan ere, Bilboko "Amigos de Mufunga" fundazioarekin elkarlanean, Kongoko emakume elkarte batzuentzat 20 eguzki-labe egin dituzte bertara bidaltzeko.

Proiektu honen bitartez hainbat helburu landu dira: Gobernu Kanpoko Erakundeak, Kongoko egoera, elikadura-burujabetza eta energia berriztagarriak ezagutu eta erabiltzea; beroketa globala murrizteko ekintza praktikoa gauzatzea; proiektu luzea taldeka egin ahal izatea... Gainera, zeharkako proiektu hau gau-



zatzeko, elkarlanean aritu dira ikasgai desberdinen bitartez: Irudia eta Soinua, Euskara, Teknologia eta Balio Etikoak, besteak beste.

Egin beharrekua aurrera eramateko, zubiak eraiki dituzte hainbat erakundeekin. Honi esker, adibidez, Bergarako Ibili enpresak janaria prestatzeko lapiko bereziak erdi prezioan eman dizkie. Eta Ermuko Udalak proiektuaren zati bat diruz lagundu du. Honekin batera medikamentuak ere bidaliko dituzte Mufunga ospitalera, itsasontziz, sei hilabete iraungo duen bidaian.

Kontuan hartu behar da proiektuak jarraipena izango duela. Izan ere, datorren ikasturtean bideoak bidaliko dituzte Kongotik, eta ikasleek herrialde horrekin harremana sortzeko aukera izango dute.

Altruismoak sortzen duen zoriontasuna izan da ekimenaren motorra, hiru hilabete hauetan ikasleen interesa mantendu ahal izateko. Benetan polita izan da ikustea ikasleek nola egin duten lan!

Hirugarren urtez egin da Ermua BHI In Eusliders tailerraren Ekintza Soziala


Oraingoan, 3. mailako euslidersrek, 4. mailako gidaritzapean, Euskaldariak postre lehiaketa pentsatu, adostu, antolatu eta burutu dute. Maiatzaren 13an, 9.00etan ekin zioten postreak sortzeko mahaiak eta abarrekoko muntatzeari eta 11:30ean, ospatzeko hainbat dantza egin ostean, bazituen lehiaketak bi talde irabazle: postrerik goxoena eta itxurarik ederrena.

Lehiaketan lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren mailako 2-3 kideko 20tik gorako taldek hartu zuten parte. Giro ezin hobean, taldeek ordu erdi izan zuten etxetik erdi egina ekarri zuten postreari azken ikutuak emateko. Ondoren, epaimahaiaren lana etorri zen. 20tik gorako postre guztiak probatu eta jan ondoren, hainbat dantza egin zituzten parte hartzaileek, tripa arintzeko-edo. Irabazleek amantala ederrak eta Ermuko dendetan xahutzeko opari-txeke bana jaso zituzten. Benetan arrakastua, berriro ere, Euslidersren Ekintza Soziala!!!



FEREDU

SOLUTIONS S.L.



- * HEZETASUNAK
- * ERREHABILITAZIOA
- * INPERMEABILIZAZIOAK
- * MANTENIMENDUAK
- * IGOGAILUAK
- * ERREFORMAK
- * FATXADAK
- * ITE
- * TEILATUAK
- * GARBIKETAK

www.feredusolutions.com
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

MALLABIA 1972

Argazki hau 1972ko irailaren 11n aterata dago. Bertan agertzen dira Ana Isabel Gallastegi eta Alberto Gallastegi lehengusuak, Goitako Angel Gallastegiren eta Maritere Telleriaren ezkontza-ospakizunean. Ana Isabel apirilaren hasieran zendu zen, gaixotasun baten ondorioz.



ERMUA 1965



Mallabiko Arteta ermitako erromerian, San Inazio egunetz ermuarrak, senide arteko erretratuan. Ezkerretik eskumara begiratuta Benita Olañeta, bere alaba M^a Dolores Izagirre eta honen Conchi Izarra loba; Miguel Mari Areitioaurtena eta beronen Catalina Izagirre ama; Conchiren Pili Santano laguna eta eskumarengo Juanita Izagirre, Catalinaren ahizpa.

Hamburguesería
TITANIC



*Pintxo dastaketa
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454

sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Komunitateak

San Pelayo

*Aholkularitza
juridikoa*

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



Udal Euskaltegia

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA • 943 170 925

ermukoudaleuskaltegia@gmail.com



FOTOKOPIAK

**KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOIA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

LAN BILA

Ermuko neska euskalduna eskaintzen da umeak goizez zaintzeko. Esperientziarekin eta magistaritza ikasketekin.
© 648 62 52 09.

Neska gaztea, arduratsua eta esperentziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.
© 632 04 40 01

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Orduka, jardun erdia edo osoa. Berehala hasi naiteke lanean.
© 632 41 53 74.

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko, edo pertsona nagusiak eta desgaituak zaintzeko. Esperientziarekin. Lan externa edo orduka.
© 617 67 49 27

IRAKASKUNTZA

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat.
© 688 68 36 55.



Nora (maiatzaren 4an) eta Lander (maiatzaren 22an)
Zorionak Nora zure 4. urtebetetzean eta Lander zure 5. urtebetetzean. Aitite eta amamaren partez. Asko maite zaituztegu!



Ekainaren 5ean
Zorionak Izaro!!! Zure irribarrearekin segi! Asko maite zaitugu! Eder, aita eta ama!



Maiatzaren 16an
Zorionak Lier!!
7 urte!!! Musu itzela etxekoan partez. Asko maite zaitugu, txiki!



Laia (maiatzaren 26an) eta Udane (ekainaren 1ean)
Zorionak etxeko sorgintxoiei! Ondo-ondo pasa zuen egunean! Ospatuko dogu topera! Pilo bat maite zaituztegu! Ama, aita eta familia guztiaren partez.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua elektronikoa helbide honetara:
drogeten@gmail.com

Azken eguna: Ekainaren 17a.



**TXINDURRI
TALDEA**
Tokian
tokiko

PRO
arraindegia



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

**Infreñu
Taberna**

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com



**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

ANTZERKIA

Hilak 4:
"Esperpentos de chispa y fuego", La Novena taldearen eskutik. Sarrera doan. 20:30ean. Ermua Antzokian.

Hilak 11:
"Ese no!", Banarte taldearen eskutik. Sarrera: 8 € (6 €, aldeztatik erositak). 20:30ean. Antzokian.

ERAKUSKETA

Hilaren 13tik 26ra:
Margoa: Mugartea taldearen lanak. Lobiano Kulturgunean. 18:00etatik 20:00etara.

MUSIKA

Hilaren 14tik 16ra:
Kontzertuak: Alboka Musika Eskolako ikasleak. 19:00etan. Lobiano Kulturgunean.

Hilak 17:
Kontzertua: Alboka Musika Eskolako ikasleak (Alboka eguna). 20:00etan. Orbe Kardinalaren plazan. Sarrera doan.

Hilak 21:
Musikaren Nazioarteko Egunaren kontzertua. 18:00etan. Liburutegiko patioan.

DANTZA

Hilak 11:
Txindurri Eguna: Dantza poteoa, dantza erakustaldia, eromeria eta larraindantza. 12:30etik aurrera. Orbe Kardinalaren plazan.

Hilak 12:
Txindurri Eguna: Kalejira, dantza erakustaldia, herri bazkaria eta plaza dantza. 11:00etatik aurrera. Orbe Kardinalaren plazan.

BESTELAKOAK

Hilak 5:
Magiaren elkartasunaren emanaldia. Sarrera: 5 €. 18:30ean. Antzokian.

Hilak 12:
Kale margo lehiaketa. 9:00etatik aurrera.

Hilaren 13tik 19ra:
Gastronomiari buruzko jardunaldiak.

Hilak 18:
El Rocioko eromeria. Betiondoko aparkalekuan. 11:00etatik aurrera.

Hilak 23:
San Juan sua. 22:00etan. Orbe Kardinalaren plazan.

Hilak 25:
Antxitxiketan taldearen 25. urteurrena. 11:00etatik aurrera. Plazan.

Patxi López

Euskaraldirako koordinatzailea behar da Ermuan

Epea: Irailaren 1etik abenduaren 31ra arte.

Zereginak: Euskaraldia ekimenaren baitako eragiletza lanak bere ardurapekoak izango dira eta honako zereginak izango ditu, besteak beste:

- Ermuko eragileei eta herritarrei Euskaraldia ekimena aurkeztu eta prestakuntza eskaini.
- Euskaraldiko herri batzordeak ahaldundu eta indartzeko ekimenak garatu eta dinamizatzea.
- Tokian tokiko komunikazio plangintza bideratu eta ekimenak garatzea.
- Entitateen lanketa planifikatu eta garatzea.
- Herritarrak ahobizi/belarririprest dinamikarako aktibatu eta prestatzea.
- Herritarren eta entitateen izen ematea antolatzea.
- Balorazioa eta aurrera begirako urratsak adostea herriko euskaltzaleekin.
- Ekimenaren aurrekontua kudeatzea.
- Dinamizazioa: Antolatzaileen eta herriko boluntarioen lana koordinatzea. Koordinazio

orokorreko mintegi eta bileretan parte hartu eta ekimen orokorreko sustatzaileekin koordinatuta egotea.

Baldintzak: Hautagitzak euskalbirusa@gmail.com helbidera bidali beharko dira, ekainaren 15a baino lehen.

Honako baldintzak betetzea eskatuko zaie hautagaiei:

- Euskara maila egokia izatea.
- Ermua ezagutzea.
- Euskaltzalea izatea eta euskalgintzaren eza-gutza izatea.
- Jendaurrean eta jendearekin harremanetarako gaitasuna izatea.
- Eragiletzarako gaitasuna izatea (ekimena herrian zabaldu eta ekimenera jendea erakartzeko abilezia).
- Kudeaketarako gaitasuna izatea.
- Komunikazio alorreko ezagutza izatea baloratuko da (sare sozialak, bideoen sorrera, webguneen kudeaketa, diseinua, ofimatika...).
- Lanerako autonomia maila altua izatea ezinbestekoa da.
- Ordutegi malgutasuna ezinbestekoa da.
- Gidabaimena eta autoa.

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendereana 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

arral

Luis Cañas
Amaren
Cair
Ehun
Txakoli Astobiza
Pazo Señorans
Cava Oriol Rossell

Cair
Casar de Burbia
Bodegas Valdemar
García de Olano
Manzanos Wines
Pernord Ricard Wines
Faustino García Martínez.

FAMILIA
LUIS CAÑAS
BODEGAS Y VINOS

nitida

T.943176075

arral@arral97.com | Pol. Goitondo-Goikoa, Parc.7 - Pab.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

URRETA burdindenda

- ✕ Etreka
- ✕ Tresneria
- ✕ Erikolazjea
- ✕ Errailak
- ✕ Giltzak
- ✕ Sarrailagintza
- ✕ Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel. 943 17 65 61 ERMUA

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

Udan ere, zure bidelagun

aek
euskara praktikoa



Kaltxango AEK euskaltegia

1go BATXILLERREKO IKASLEENTZAT (Plaza mugatuak)

B2/C1 EKAINEAN (80 ordu)

Izena emateko azken eguna: maiatzaren 27a

B1/B2/C1

Ekainaren 24tik uztailaren 22ra (80 ordu)

Irailaren 1etik 30era (80 ordu)

IKASTURTEAN ZEHAR IBILITAKO IKASLEENTZAT

Irailaren 12tik 30era (30 ordu)

Izena emateko azken eguna: ekainaren 10a

Zearkale 16 | 943 17 19 40 · 688 746 480 | kaltxango@aec.eus



EUSKALTEGIAK

Ikastaro trinkoak
Etxe ondoan
Euskara ikasteko
Azterketak prestatzeko



ONLINE IKASTAROAK

A1, A2, B1, B2, C1, C2



2 ASTEKO BARNETEGIAK

Euskara-eskolak
Euskaraz bizitzeko
Azterketak prestatzeko



FAMILIA BARNETEGIAK

Euskara ikasteko
Seme-alabekin
euskaraz aritzeko

Une zailenetan guztiaz arduratzen gara



Valdespinako Markesa kalea, 16



Hileta zerbitzuak:

- 24 orduko hileta-zerbitzu iraunkorra.
- Agur pertsonalatuak.
- Gestoria: azken borondateak, oinordetzak, pentsioak, aseguruak...
- Estatuko eta nazioarteko lekualdaketak.

T. 943 176 159

Ermua · Eibar · Elgoibar · Bilbo · Basauri · Galdakao · Barakaldo · Portugalete ·
Santurtzi · Leioa · Getxo · Sestao · Karrantza · Zalla · Muskiz · Balmaseda